

**PARTE-HARTZE PROZESUA 2015  
EMAITZAK**

115 galdetegi jasota 135tik (%85,2)

ERABAT TXURIAN: 3

KONTABILIZATUAK: 115

<b>Ekintzen zerrenda</b>	<b>Botuak guztira</b>				
	<b>5</b>	<b>4</b>	<b>3</b>	<b>2</b>	<b>1</b>
1 – Orendaindik Abaltzisketara oinezko bidea egin	27	17	11	4	7
2 – Gimnasioa jarri	4	13	3	10	5
3 – Herri bideak asfaltatu	22	3	9	8	10
4 – Hirigunearen peatonalizazioa exekutatu	7	4	7	7	6
5 – Hainbat zerbitzu (medikua, ileapaintzailea, podologoa, etab.) izateko lekua prestatu	10	19	7	12	9
6 – Herriko sarreran abiadura jaisteko neurriak hartu	5	7	13	11	10
7 – Udalak herrian egon daitezkeen lan nitxoen inguruko ikerketa egin	2	11	11	9	9
8 – Herrigunetik kanpo eserlekuak jarri	1	3	11	12	9
9 – Pilotalekua margotu	2	2	10	5	8
10 – Hilerriko nitxoan gabezia konpondu	6	6	2	5	8

TXURIAN: 4

BOTO NULOAK: 24

<b>Ekintzen zerrenda</b>	<b>BAI</b>	<b>EZ</b>	<b>TXURIAN</b>	<b>Bai - Ez</b>
11 – Igerilekua	39	69	7	-30
12 – Ibiur aldera errepidea ireki Orendainek beste irteera bat izan dezan	83	24	8	+59
13 – Bide gorria Ikaztegietara	46	57	12	-11
14 – Bide gorria Alegira	51	54	10	-3
15 – Herri bideak txukundu, etxeetarako bideak konpondu	99	8	8	+91
16 – Hirigunean loreak jarri Nulo: 1	59	44	11	+15
17 – Rokodromo bat	28	74	13	-46
18 – Haur parkea estali; toldoa jarri...	65	41	9	+24
19 – Jauregitik Zaragozarainoko bidea asteburutan peatonalizatzea	43	65	7	-22
20 – Spinningeko bizikletak eta sortuko den gimnasia lekukoak akumulatzaile batera lotzea energia hori argindar bezala erabiltzeko	48	57	10	-9
21 – Karbono dioxidoa murrizteko neurriak hartu: ibilgailu elektrikoa bultzatu (kotxe elektrikoaren kasuan norberak etxean izango duen plakak kargatzen duena)...	43	56	16	-13
22 – Konpostadora makina bat herri guztiarentzat	62	43	10	+19
23 – Hilerri eta frontoi atzeko lurrak erosi, piñu hoiak bota eta bertako zuhaitzak jarri	44	57	14	-13
24 – Estazio meteorologiko bat ezartzea (haizea, euria... neurtzeko)	47	58	10	-11
25 – Ximaurra, purina, etxeetan sartzen den materia organikoarekin konposta egitea: Material horrekin energia sortzea... gutxienez informatzea guzti horren inguruan	77	27	11	+50
26 – Herriarentzat interes publikoa duten eremuak aztertu eta babestu	76	28	11	+48
27 – Orendain transgenikorik gabeko gunea izatea bermatzea eta ziurtatzea	73	30	12	+43
28 – Ur kontsumoan murrizketa emateko sistemak				

bultzatu	92	13	10	+79
29 – Argiteria jarri herri kaskotik kanpoko guneetan	44	48	23	-4
30 – Eskola ez dagoenean umeentzako zaintza zerbitzua jarri	64	37	14	+27
31 – Errepidea zabaldu	77	30	8	+47
32 – Herritar sareak sortu bakardade egoeran egon daitezkeenak goxatzeko: astean behin paseoak eginez...	82	21	12	+61
33 – Haurrak Alegira jaisteko zerbitzuak eskaini	77	26	12	+51
34 – Udalak bizikleta elektrikoak jartzea	27	73	15	-46
35 – Udazken-negurako asteburu batzuei begira agenda kulturala antolatu	67	34	14	+33
36 – Herrian bertan egin daitezkeen ekimenez gain, urtean 2-3 irteera kanpora egin	66	29	20	+37
37 – Paseo herrikoiak antolatu	47	47	21	0
38 – 1. sektorearekin lotutako proiektua egin herrian lanpostuak eta produktuak sortuz	97	6	12	+91
39 – Herriko produktuen salmenta ahalbidetzea	97	6	12	+91
40 – Entresakak egiteko udalak bere mailua erostea	38	61	16	-23
41 – Herrian edo herritarren telefono zenbaki bat izatea herritarroi beharren bat suertatu ezker	59	40	16	+19
42 – Udazken-neguko asteburuei begira ekintza kulturalak antolatu	66	33	16	+33
43 – Herritarrentzako sutarako egurren ustiaketa udaletik antolatzea	57	43	15	+14
44 – Euskal Herriko burujabetzaren alde udaletik lan egitea	71	20	24	+51

<b>Ekintzen zerrenda</b>	<b>BAI</b>	<b>EZ</b>	<b>TXURIAN</b>	<b>Bai - Ez</b>
Orendaindik Rallya pasatzeko baimena ematea Irurako ikastolari	47	55	13	-8

BOTO NULOAK:

Ekintzen zerrenda		BAI	EZ	TXURIAN	Bai - Ez
1	Herri bideak txukundu, etxeetarako bideak konpondu	99	8	8	+91
2	1. sektorearekin lotutako proiektua egin herrian lanpostuak eta produktuak sortuz	97	6	12	+91
2	Herriko produktuen salmenta ahalbidetzea	97	6	12	+91
4	Ur kontsumoan murrizketa emateko sistemak bultzatu	92	13	10	+79
5	Herritar sareak sortu bakardade egoeran egon daitezkenak goxatzeko: astean behin paseoak eginez...	82	21	12	+61
6	Ibiur aldera errepidea ireki Orendainek beste irteera bat izan dezan	83	24	8	+59
7	Haurrak Alegira jaisteko zerbitzuak eskaini	77	26	12	+51
8	Euskal Herriko burujabetzaren alde udaletik lan egitea	71	20	24	+51
9	Ximaurra, purina, etxeetan sartzen den materia organikoarekin konposta egitea: Material horrekin energia sortzea... gutxienez informatzea guzti horren inguruan	77	27	11	+50
10	Herriarentzat interes publikoa duten eremuak aztertu eta babestu	76	28	11	+48
11	Errepidea zabaldu	77	30	8	+47
12	Orendain transgenikorik gabeko gunea izatea bermatzea eta ziurtatzea	73	30	12	+43
13	Herrian bertan egin daitezkeen ekimenez gain, urtean 2-3 irteera kanpora egin	66	29	20	+37
14	Udazken-negurako asteburu batzuei begira agenda kulturala antolatu	67	34	14	+33
15	Udazken-neguko asteburuei begira ekintza kulturalak antolatu	66	33	16	+33
16	Eskola ez dagoenean umeentzako zaintza zerbitzua jarri	64	37	14	+27
17	Haur parkea estali; toldoa jarri...	65	41	9	+24

18	Konpostadora makina bat herri guztiarentzat	62	43	10	+19
19	Herrian edo herritarren telefono zenbaki bat izatea herritarroi beharren bat suertatu ezker	59	40	16	+19
20	Hirigunean loreak jarri Nulo: 1	59	44	11	+15
21	Herritarrentzako sutarako egurren ustiaketa udaletik antolatzea	57	43	15	+14
22	Paseo herrikoiak antolatu	47	47	21	0
23	Bide gorria Alegira	51	54	10	-3
24	Argiteria jarri herri kaskotik kanpoko guneetan	44	48	23	-4
25	Spinningeko bizikletak eta sortuko den gimnasia lekukoak akumulatzaile batera lotzea energia hori argindar bezala erabiltzeko	48	57	10	-9
26	Estazio meteorologiko bat ezartzea (haizea, euria... neurtzeko)	47	58	10	-11
27	Bide gorria Ikaztegiatara	46	57	12	-11
28	Hilerri eta frontoi atzeko lurrak erosi, piñu hoiek bota eta bertako zuhaitzak jarri	44	57	14	-13
29	Karbono dioxidoa murrizteko neurriak hartu: ibilgailu elektrikoak bultzatu (kotxe elektrikoaren kasuan norberak etxean izango duen plakak kargatzen duena)...	43	56	16	-13
30	Jauregitik Zaragozarainoko bidea asteburutan peatonalizatzea	43	65	7	-22
31	Entresakak egiteko udalak bere mailua erostea	38	61	16	-23
32	Igerilekua	39	69	7	-30
33	Rokodromo bat	28	74	13	-46
34	Udalak bizikleta elektrikoak jartzea	27	73	15	-46

<b>Ekintzen zerrenda</b>	<b>BAI</b>	<b>EZ</b>	<b>TXURIAN</b>	<b>Bai - Ez</b>
Orendaindik Rallya pasatzeko baimena ematea Irurako ikastolari	47	55	13	-8

## Proposamen berriak

### Zer egin daiteke hirigintza hobetzeko?

- Frontoia margotu, murala eginez, atzeko paretean
- Etorkizunean etxe edo eraikuntza berriak eraikiko badira udalak sostengarritasun eta bertako arkitektura motari erreparatzea
- Kantatzen edo coral bat saiatu egiten
- KZgune nahiz kultur etxea erabiltzea erraztea, norberaren txartel elektronikoa aukeran
- Loreak jarri
- Picnic egiteko leku bat
- Abaltzisketatik Orendainera bide gorria edo errepidetik kanpo gelditzen den bideren bat aukeran jarri ezker, herriak berak bisitari gehiago izango litzuke, honek dakarren herriarentzako aberastasunarekin
- Auzotik herrigunera doazen eskaileren proiektua egin
- Hiri haundiek dauzkaten zerbitzu guztiak (gasa, etab.)
- Plazako ibilgailuen noranzkoa finkatu alde bakarrera eta baden bat edo beste jarri abiadura eta istripu arriskua (umeena) batez ere txikiagotuz
- Herritarrentzako dauden espazioak bultzatu. Batez ere eraikin berria zein umeentzako ludoteka
- Erretore etxean zerbait egin: ikastaroak, alberge bat, tailerrak
- Etxe hutsen auziari tinko heldu. Etxe berririk ez egin
- Errepidea plazatik kentzea, eliz atzetik pasatzea egoki deritzot, baina horretarako hirigintza proiektua egoki aztertu beharko litzateke. Kaskoan hirigintza proiektu on bat egiteko dagoela iruditzen zait. Lehen egin dena ez dela ondo egin pentsatzen dut
- Gimnasioa eta bidegorria jarri
- Azpimarratu nahi nuke herritarrentzat telefono zenbaki bat izatea beharren bat izan ezker, garrantzizkoa iruditzen zait
- Ondo dago
- Herrigunean autoek behar den tokian aparkatu dezaten lanketa. Nahiz eta udaltzainik izan ez, sentsibilizazio kanpaina bat edo egin liteke
- Peatonalizazioa aurrera eraman (Kasko Gainekoa)
- Ez dakit hemen sar daitekeen, baina edozein ustiapen edo obretan kamioiek lokatz, purin, eta abar uzten dute errepidean eta arriskutsua geratzen da batipat euria egiten duenean (bai auto eta gehienbat bizikletentzat). Errepidera atera aurretik kamioien gurpilak mangeraz garbitzea behartzera ez zen gaizki egongo. Hartu bezala utzi dezatela errepidea. Ezin zaie errepidea ibiltzea ukatu, baina bai erabiltzeko moduak zeintzuk diren esan. Eta ez naiz pixetaz ari, baserritarren lana ulertzen dut, baina arriskua hor dago. Niretzat usaina gutxienekoa da
- Elizari eta eskolapioei dagokiena eskatu. Ez dute terrenorik saltzen, nahi dutena egiten dute eta gainera diru-laguntza ematen zaie. Nahikoa da mesedez
- Kaskoan dauden partzelen itxiturak errespetatu ditzatela gehienezko alturak
- Loreak edo arbustoak jarri eta auzolanean zaindu
- Araudia birpasatu eta hobetu; ikuspegi parekide batetik aztertu
- Udaletxe ondoan pibote parean marra horia pintatu
- Eliz atzeko bide guztian marra horia pintatu, mantendu. Bide hau BETI libre egotea
- Peatonalizazioa eta Mutxe eremuan plazara begira egongo diren etxeak egin, plazari bukaera bat eman

## **Zein zerbitzu botatzen dituzu faltan?**

- Badaudela nahikoa zerbitzu uste dut
- Medikarena joateko Alegira garraioa debalde
- Gimnasioa kanpoan jartzea badago
- Denda bat denetik saltzen dena, aldizkariak, ogia, latak eta era guztietako elikagaiak
- Herrian ez daude bakarrik umeak baita ere helduak
- Medikua, ileapaintzailea, herri eskola, erizaina, eguraldi txarra dagoenean gurasoak umeekin egoteko leku bat
- Medikua, erizaina asteko egunen batean herrian izatea.
- Ileapaintzailearentzat txoko egoki bat
- Haurrak neguan gurasoekin egon daitezkeen txoko bat
- Ezer gutxi
- Aita-amak neguan umeekin egon gaitzkeen topalekua. Baliarrainen adibidez badago eta antzeko herria da
- Medikua, janari denda
- Medikua
- Janari denda txiki bat
- Picnic egiteko lekua
- Ileapaindegi zerbitzua maizago
- Podologo zerbitzua
- Autobusa
- Oinarrizko elikadura produktuak dituen dendatxo bat. Bertako produktuak saltzeko puntu egokia ere izan daiteke. Arrain saltzailea eta herritarren arteko adostasuna lortu daiteke adibidez, eta dendatxoarentzako herritarrek beharra izan ezker zerbitzu honen iraupena mantentzeko konpromezua
- Omeopraktiko bat
- Oinarrizko produktuen denda txiki bat
- Denda txiki bat edo behintzat ogia erosteko aukera
- Ogia eta egunkaria erosteko gunea
- Gimnasioa
- Eraikuntza erabiltzeko ahalmena
- Autobusa
- Autobusa
- Ohiko produktuak lortzeko denda txiki bat izatea herrian
- Soberan daude
- Oinarrizko produktuekin denda txiki bat
- Eskola
- Liburutegira sartzeko giltza elektronikoa edo zerbait
- Kiropraktikoa
- Autobusa
- Hilerrian hilobi libreak eta errautsak gordetzeko lekua
- Hilean behin kiropraktiko bat
- Hilean behin kiropraktiko bat
- Izatekotan denda

### **Zer egin daiteke osasun zerbitzuak hobetzeko?**

- Osasun zerbitzuen behar gutxiena izateko prebentzio edo osasun ona izateko programak bultzatzea, hala nola, kirola, elikadura...
- Badaude medikuntza konbentzionalaz gain bestelakoa ere. Medikuntza naturala eskura izan ahal izateko dirulaguntzak
- Nere ustez Alegian ondo dago. Bakarrik falta da garraioa
- Nere ustean Alegira medikura joateko garraioa dohainik izatea
- Medikua eta erizaina herrian edukitzea
- Alegiko mediku eta erizaina asteko egun batean herrira igotzea
- Jaten erakutsi eta gaitz erdi
- Spinning-era joan eta gero miradorean haize freskoa hartuz luzaketa ariketak egin, eta minak uxatu
- Astean behin medikua ekarri, herriko jendearentzat eta batik bat herriko helduentzat, medikuarekiko gertutasuna onuragarria delako
- Garraioa dohainik izatea
- Astean behin edo bitan erizain eta sendagile zerbitzua herrian
- Ez dakit. Zorionez ez dut honen behar handirik, beraz, ez dut hobetzeko beharrik ikusten. Medikuntza konbentzionalaren funtzionamenduan ere nire zalantzak ditut
- Astean behin edo bitan medikua igo dadila herritarrek bertatik bertara zerbitzu hori izan dezaten, Alegira jaitsi beharrik izan ez dezaten, adinekoek batez ez
- Dohainik jarri
- Uste dut Alegikoarekin nahikoa dela
- Kotxerik ez dutenei edo zaintza berezia dutenei Alegira medikura joateko erraztasunak eman (taxia ordaindu)

### **Zein kultur ekintza proposatzen dituzu?**

- Birziklatutako objektu edo materialekin gauza erabilgarriak sortzeko tailerrak egitea
- Mendira irteerak
- Kontzerturen bat eskaintzea
- Mendira joatea igandetan. Irteerak
- Irteerak, pelikulak, ipuin kontalariak
- Mendi irteerak
- Auzolanak
- Hilabetean behin herriko jendea elkartzea elkartean afaltzeko
- Hitzaldiak, pelikulak (haur + helduentzat), ipuin kontalariak, antzerkiak...
- Euskal Herri edo napar historia lehendabizi
- Antzerkia
- Monologoak
- Ipuin kontalariak
- Bertso tailerra sortzea
- Gaztainak bildu eta denon artean prestatu ondoren jatea. Udazken – negurako zinea ondo zegoen
- Babarrunak jatea. Urtean behin mondeju jana. Eta ardikiak
- Hurrei zuzendutako ekintza gehiago
- Herriari onurak ekar diezazkioken zenbait kirol ekitaldi antolatzea aztertu
- Ekintza kulturaletara jende asko ez dela joaten kontuan izanik, herrien arteko agendak osatzen saiatuko nintzateke, alegialdea mailan esaterako.
- Azoka ekologikoaren eguna antolatu
- Barre egiteko monologo saioak, antzerkiak, zinea, eta abar. Herriko jaietan musika talde on bat ekartzea
- Pintxo-potea, zinea
- Santa Ageda bezperan abestuz joatea baserriz baserri
- Aniztasuna eta errespetuari buruzko hitzaldiak



- Feminismoa zer den azaltzeko hitzaldia
- Herri afariak
- Eguberriak, Santa Ageda... kantu-jira
- Umeentzat, emakumeentzat, adinekoentzat... kultur eskaintza berezituak: antzerkia, musika emanaldiak...
- Negu parterako, asteburuetarako proposamenak. Mahai-inguruak, hitzaldiak, bideo emanaldiak (zinema?) ...
- Eguberrietako ekintzak
- Zinema
- Hilean behin sukaldaritza ikastaroa arratsalde edo iluntze batean
- Euskal kultura sustatu
- Monologoak
- Goiz bateko kata-tailerrak: ogia, kafea, gazta, txokolatea, garagardoa, ardoa...
- Idazleekin liburu aurkezpenak eta kafe tertuliak
- Bi hilabete behin, ostiraletan, kultur etxean hitzaldi bat antolatu
- "Risoterapia" tailerra

### **Zeri buruzko hitzaldiak antolatzea gustatuko litzaizuke?**

- Euskara, nazioa, estatusgintza, feminismoa
- TTPI-ari buruzko informazio hitzaldia. Komunikatzen ikasteko hitzaldi edo tailer bat
- Lanpostuei begira
- Politika ez mesedez
- Baserria eta garai bateko bizimodua
- Adimen emozionalari buruz
- Pertsona toxikoei buruz
- Feminismoari buruz
- Larrialdietako lehen laguntzei buruz
- Osasuna, tailerrak, (kremak, xaboiak, ukenduak... egiteko), haurren heziketaren inguruko hitzaldiak
- Gure historia, martzianoak, ekonomia
- Sexologiako hitzaldiren bat
- Elikadura, osasuna, bizi kalitatea hobetzeko aukerak,...
- Adimen emozionala, jarraipena
- Herriaren ingurua, natura, historia ezagutzeko lotura hori badagoen arren
- Lanari buruzkoak
- Autoestima, motibazioa
- Kultura, kirola, historia, osasuna...
- Ekonomia sozial eraldatzailearen inguruko hitzaldiak interesgarriak lirateke, dena den, ez dut uste hori udalaren ardura izan beharko zukeenik
- Senda belarrak ezagutzeko eta nola erabili
- Baserrietako jardueraren garrantzia ingurunea babesteko, herri txikien jasangarritasuna
- Berdintasunaren ingurukoak
- Lehen laguntzei buruz
- Baratza, etxeko konponketa txikiak, kotxeko konponketa edo mantenimendua,...
- Feminismoa
- Errespetua
- Lorezaintza
- Osasun / elikadura zaintza
- Genero berdintasuna
- Hezkuntza / Emozioen kudeaketa / Adimen emozionala
- Lorezaintza
- Baratza
- Osasuna / elikadura

- Senda belarrak eta nola erabili
- Elikadura / Osasuna
- Twitter, Facebook, sare sozialak
- Jabetze-eskola + autoestima lantzeko
- Komunikazio ez bortitza
- Segurtasuna sarean (adin ezberdinentzako) KZgunearen bidez
- Emakumeen papera landa eremuan
- Heziketa afektibo-sexuala (adin ezberdinentzako)
- Ekonomia feminista, Amaia Perez Orozko gonbidatzea lujo bat litzateke
- Autogestio herri-eredu ezberdinak ezagutu
- Mobbing, Orendaingo kulturari buruzkoa, gaur egungo egoera politikoa alderdi politiko desberdinetako politikariek, euskal preso politikoen eta iheslarien gaur egungo egoerari buruzkoa...
- Ingurugiroa
- Nekazaritza agroekologikoa

### **Alegia-Orendain-Abaltzisketa errepidean zein hobekuntza egitea proposatuko zenuke?**

- Bidegorria **x2**
- Bideak zabaldu, batez ere Agerre inguruko bihurgunea
- Ez dago hain gaizki
- Ibiltzeko bidegorria
- Bide gorria jarri
- Argiteria jartzea
- Ibiltzeko alde bat
- Orendain – Abaltzisketa bidea zabaldu eta kruzetik herrira ere bai
- Zabaldu eta bide gorriak egitea
- Bidea ahal den eina zabaltea, batik bat txirrindulari, patinatzaile, oinezko, etab. ibiltzen delako errepidetik eta istripu edo ezbeharren bat suerta litekeelako
- Orendain – Abaltzisketa arteko errepidea zabaltea
- Leku estu batzuk zabaldu
- Oinezkoentzako bidea egitea
- Bide bazterrak, sasiak, garbi mantentzea
- Zabaltea egokia litzateke
- Ez naiz aditua
- Errepidea zabaldu eta txukundu
- Errepide bazterrak garbi mantendu eta lureko arrasto zuriak margotu
- Bidea zabaldu
- Bidea zabaldu (zenbait puntuetan)
- Estuguneak zabaldu
- Alegian Orendainera hartzen den bidegurutzea libre uztea. Oztoporik gabe. Txanberin
- Bide gorria izatea ederra litzateke, bai bertako jendearen zein kanpotik datozenentzako, herriari bizia emango lioke
- Ikuspen gutxiko puntuetan ispiluak
- Pixkat zabaltea
- Bide gorria Orendain – Abaltzisketa
- Bidea txukundu eta asfaltatzea
- Errepide guztia zabaldu
- Errepidea zabaldu, erdiko marrak jarri
- Bidea zabaltea eta bide gorria jartzea
- Erortzear egon litezkeen zuhaitzen zaintza. Haizeteekin zahartuta... batzuetan oso egoera txarrean egoten dira
- Alegia – Orendain: agian asfalto zati batzuk konpondu

- Orendain – Abaltzisketa: oinezkoentzako bide alternatiboa (“bidegorria”) egin daitekeen aztertu, egin
- Bide bazterra garbi egon ezker nahikoa
- Bidegorriak egin
- Errepide guztia zabaldu
- Agerreko buelta
- Jauregiko buelta
- Bidea zabaldu, batez ere puntu beltz edo zailenetan
- Oinez eta bizikletaz lasai eta seguru ibiltzeko bidea falta da
- Tope zabaldu
- Errepidea zabaldu eta bi norabideak separatzen dituen marra margotu
- Ikusmen gutxiko kurbetan errepidea zabaldu, batez ere Ikaztegietako bidegurutzetik Alegiarako tartean
- Abiadura eta bizikleten ibilera bideratzearekin nahikoa dela uste dut
- Agerreko bide buelta zabaldu
- Ikuspegi gutxiko buelta guztiak zabaldu
- Zabaltzea
- Bidegurutzeen ikusmena eta zati batzuetan errepidea zabaltzea
- Errepide guztia zabaldu

### **Zein bidegurutzetan egin beharko lirateke hobekuntzak?**

- Jauregitik errepidera irteeran
- Ikaztegietako pistatik bekotzeko kurba ateratzen den kruzean ispilua jartzea
- Alegitik Orendainerako sarreratik kotxeak kentzea
- Herriko sarreran, hau da, Abaltzisketarako bidea daraman errepidea eta Orendainera sartzeko bidegurutzean errotonda edo antzeko zerbait ez litzateke gaizki egongo
- Orendaingo sarreretako bihurtzetan ispiluak jarri
- Alegian zubi bat Orendaingo biderako eta tonto kale beraiantzako
- Jauregiko bidegurutzetan
- Baserri bideetako bidegurutzeak aztertu eta ispiluak ezarri
- Inon
- Ez naiz aditua
- Jauregi baserriko irteeran
- Bidearte, Eguzkitza eta Lugarraga
- Agerreko bihurtzetan egingo nituzke hobekuntzak
- Jauregi baserriko irteera
- Ez zait bururatzen
- Jauregiko irteera zabaldu
- Petrilla kendu
- Beherako kruzean errotonda egin
- Bidegurutzeak ez ditut gaizki ikusten. Agian baserrien irteerak daude arriskutsuen. Ezingo da abiadura mugatu, baina bai arriskuaren berri eman gidatzen ari denari (seinaleak)
- Jauregi baserriko sarrera – irteera
- Jauregi baserrikoa
- Jauregiko irteera zabaldu
- Petrilla puskatu
- Agerreko buelta
- Jauregiko buelta
- Alegian, Txanberiko sartu – irteera
- Jauregi baserriko sarreran errepidea ikusteko ispilua jarri
- Jauregi baserrikoan. Kruzean kotxerik datorren edo ez ez da ikusten eta kotxeak oso azkar pasatzen dira, abiadura moteltzeko zerbait jarri beharko litzateke

- Jauregi eta Zaragoza
- Zaingo bidegurutzea
- Ikaztegietarako bidean
- Jauregiko irteera zabaldu
- Petrilla kendu

### **Zein herri bide asfaltatuko zenuke?**

- Ormainetik Largaratera doan bidea
- Bat bera ere ez. Asfaltoa ez da aukera bakarra
- Urkolamendi
- Urkolamendira doana
- Alegitik Orendainera doan herri bidea ibiltzeko moduan jarri
- Urkolamendi lehen oso polita zen. Orain ezin da joan
- Baserrietako bideak, nahiz eta hutsik egon **x4**
- Behar direnak
- Ormanetik Zainera doan bidea
- Urtegirako bidea
- Behar handia dutenak bakarrik. Lehenago ere nahiko asfalto badago
- Ez naiz aditua
- Urkolamendi
- Urkolamendira doan bidea eta Alegitik – Orendainera doan herri-bidea ibiltzeko moduan jarri
- Ibiur aldera jaisten dena
- Urkolamendi, Urkola, Anduti
- Ormainetik Largaratera doan bidea asfaltatuz gero edo txukunduz, Orendain bueltan osatu liteke BTT zirkuitu bat
- Asfaltatu ez, baina oinezkoentzako egokitu bai. Herriko jendeak egin izan ohi duen kaskoa, Ermita, Zaragoza eta gero errepidezko ibilbidearen alternatiba aztertu, errepidetik izan beharrean garai bateko herri-bidea berreskuratu, erdian geratzen den "Gerbille"-ren bueltan. Paseo ibilbide oso polita izan daitekeela pentsatzen dut eta orain egiten denarekin alderatuz askoz seguruagoa. Eserlekuak jarri daitezke eta aldapa handiegirik gabekoa da
- Ibiurrera doana, beste irteera bat izateko
- Bat bera ere ez
- Ez asfaltatu! Zertarako!
- Ibiurrera jaisten dena
- Ibiurrera jaisten dena
- Nik ez nituzke herri bideak asfaltatuko, baina bai txukun eta egoki jarri ahalik eta arazo gutxien egon dadin  
Dena asfaltatu nahi izaten da eta dugun ingurunea (natura) izorratzen ari gara. Beharra dagoen lekuan soilik asfaltatu
- Beharrenean dagoena lehendabizi
- Ormanetik Zainera doan bidea paseorako buelta polita geldituko litzateke
- Urkolamendiko bidea
- Orendaindik Ikaztegietara doana
- Ez dut beharrik ikusten
- Asfaltu gehiago ez, ingurune naturala mantentzeko
- Urkolamendikoa
- Urkola

### **Zer egin daiteke ur hornikuntza zerbitzua hobetzeko?**

- Puskatuta dauden ubideak konpondu. Jendeari euri ura aprobetxatzeko deialdia egin.
- Merkeagoa izatea
- Ez naiz aditua
- Merkeagoa izatea ☺
- Ez dakit
- Dohainik jarri
- Euri-ura erabiltzeko aukerak aztertu
- Udal eraikuntzetan euri-ura biltzeko sistemak jarri edateko ez diren gainontzeko lekuetara eramateko (komuneko taza, dutxak...), eta udaletxe ondoko belardiak ureztatzeko
- Ona dago

### **Zer egin daiteke energia berriztagarriak bultzatzeko?**

- Hitzaldiak antolatu honi buruz. Merkatuan dauden energia mota eta sortzaileen informazio emateaz gain energia gure kabuz sortzeko dauden aukeren tailerrak antolatu
- Wifi herri guztiarentzat
- Orendaingo haizeaz baliatu gintezke
- Baserrietan energia berriztagarrien sistemak ezartzeko laguntzak ematea (plaka solarrak, eoliko txikiak, ...) **x4**
- Informazioa eta laguntzak lortu
- Jendea kontzientziarazi
- Ez naiz aditua
- Hitzaldiak eman jendea informatzeko
- Udalari dagokion gastu energetikoa berriztagarriez hornitu
- Herriak biomasarako dauden basoak erosi behar lituzke eta dituen sailetan zuhaitzen landaketa planifikatu, galzonan egon daitezkeen bertako espezieak lehenetsiz
- Udalaren aldetik ditugun errekursoak aztertu, eta beharrezko ikasketak egin ondoren laguntza eskaini, herritarrak informatuz honen erabilpenak dituen onurak azalduz
- Herri osoarako sistema berriztagarria
- Diru-laguntza gehiago eman
- Laguntzak eta informazioa eman. Herriak haize errota bat jarri lezake energia merkea izateko herritarrontzat, haizea badago...
- Panel solarrak ipini
- Ez dakit. Bizikletena tontakeri bat da
- Eskaintza / aukera ezberdinez informatu
- Erabilera-kanpainak antolatu
- Gaur egun dauden aukera ezberdinak ezagutzera ematea herritarrei (denek ez dute informazio bera jasotzen herritik kanpo), gero aplikatu badaiteke hobe
- Bizikleta elektriko bat jarri (denen eskura) udaletxean behar duenak erabiltzeko (baserrietara joateko, Abaltzisketara, ...)
- Herri osoarentzat energia berriztagarria (zein ikusi egin behar)
- Hitzaldiren bat antolatu
- Herri osoarentzat haizezko errota!
- Herritarrak informatzeko jardunaldiak antolatu eta energia berriztagarriak erabiltzeko diru-laguntzak lortu eta eskaini, askok aurrez inbertsio garrantzitsua egitea eskatzen baitute
- Zoritxarrez ekonomikoki merkeagoak direnean indartuko dira

## Zer egin daiteke zabor bilketa hobetzeko?

- Gaizki egiten dutenei isunak jarri
- Beiraren bilketa puntua, gainontzeko zabor bilketa egiteko ahalbidetzen diren puntuekin batera egotea
- Oso ondo dago
- Primeran dago
- Blokeetako konposta non botatzen da? Behin baino gehiagotan konposta ondo egin gabe konpost-gune ingurutan ikusi dut
- Organikoentzako 5.edukiontzia jarri
- Zabor gutxiago sortu
- Ondo dago
- Ez naiz aditua
- Konposta sistema hobetu
- Hobetua dago ezta?? Organikoa etxeetan tratatzen da. Plastikoa da gehien sortzen den materia. Hori enpresek murriztu behar dute. Nik saskia hartuta egiten ditut erosketak eta haragia eta arraina tuperrean. BALE YA!! Urteko tasa igo egin da. Ez dut ezer ulertzen
- Oso sistema ona dugula esango nuke; akaso, noiz edo noiz informazio kanpainak egitea garrantzitsua litzateke, baita kontzientziazioarenak ere
- Ez zait hobekuntzarik bururatzen
- Konpostatzeko makina herri osoarentzako
- Herri guztirako konpostagailu bat jartzea
- Ez dakit
- Konposta beharrean organikoa birziklatzeko sistema hobeto bat jartzea
- Konpostagailu partekatua jarri
- Ez inposatzea
- Txaboletako zaborrak maiztasun gehiagorekin bildu. Askotan gainezka egoten dira
- Konpostagailu komunitarioa: txirbila amaitzen denean jendeak ez du berriro betetzen eta etxetik ateratako organikoa deskontentsatua uzten da kontenedorean. Arduratsuagoak izatea falta zaigu, hobetu beharko litzateke hori
- Garbigune txaboletan, izan ditzakegun zaborren adibide gehiago jartzea tauletan. Gidaliburu bat ere uztea txabola bakoitzean
- Organiko ontziak (konpostagailu) komunitarioak jarri behar badira jarri, baina ez denak leku berean. Komunitate bakoitzak bere zona
- Makina konpostagailua jarri. Organikoa etxeetan eduki beharrean konposta egiteko
- Kristalak biltzeko ontzia jarri etxola bakoitzean
- Papera eta plastiko kontenedore handiak ireki eta ez behartu etxolakoak erabiltzea. Etxolan soilik errefuxa
- Araudi bat ezarri, ezagutzera eman eta ondo aplikatu
- Etxe bakoitzak bere konpostagailua izan beharrean, aukera eskaini konpostagailu amankomun bat jarriz etxe ondoan konposta egin beharrean, bertara eramateko aukera izateko
- Frontoi, elkarte eta eliz atzeko hiru txabola kendu eta eliz atzeko kontenedoretan giltzarekin jarri, gertu dago eta ez ziren hiru jarri behar. Batzuk zaborkerian jarraituko dute era guztietan

## **Zer egin daiteke herriko ekonomia sustatzeko?**

- Bertako baliabideen azterketa sakona egin eta hauetan proiektuak sortzeko proposamenak eman
- Pena ematen du erretore-etxeak, egin daiteke alberge bat edo tailer bat
- Azokak antolatzea baserritarrak bere produktuak saldu ahal ditzaten
- Lanpostu gehiago
- Enpresak sortu (adinekoak zaintzeko, eta abar)
- Dendatxo edo enpresa ideiak bultzatu, neurri xume batean noski eta herriarekin, bere izaerarekin bat badator hobe
- Enpresa eta lanpostu sorreren aukerak aztertu
- Herriko ekonomia sustatzeko herria egin behar litzateke, hau da, Orendainek duen balio bereizgarria (paisaia eta eremu natural paregabea) zukutu beharko litzateke, paisaia kultural bat egin funtsean eta horretarako legegintzaldi bat edo bi baino haratago doan proiektu bat osatzen hasi. Esate baterako, hemen dagoen ondare inmateriala biltzen hasi (Pakitarena izan liteke lehen urratsa) eta bilketa horretan herriko gazteak inplikatu
- Turismo jasagarria nola sortu aztertu. Aukerak dituen ingurunean bizi garela uste dut, eta arduratsuak izan ezker, arrakasta izan dezakeen zerbait dela uste dut.
- Denboraren bankua
- Herriko lanak herritarrontzat izatea sustatzea
- Lanpostuak sortu
- Lana sortu
- Herritarrei laguntzea baina ez orain egiten den bezala. Orain laguntza dago udaletxean daudenentzako zirkuluan bakarrik
- Martxan dauden negozioak babestu / promozionatu ahal den neurrian
- Negozio nitxo berriak aztertu lanpostuak sortzeko
- Udaletik egiten diren kontratazioak herrikoentzat lehenetsi
- Udaleko kontratazioetan herritarrak lehenetsi
- Bertako produktuen zabalkuntza bultzatu
- Interneta fibra bidez izatea, etxetik lan egin ahal izateko
- Astelehenetan herriko azoka egin
- Aukera bat izan daiteke astebururen batean azoka berezia antolatzea, herriko nekazari eta abeltzainek, edo artisauek ere, beren produktuak saltzeko aukera izan eta kanpoko jendea Orendainera gerturatu dadin
- Nekazari eta abeltzainei galdetu

## **Zer egin daiteke Orendaingo paisaia babesteko?**

- Ez suntsitu eraikuntza berriak egiteagatik.
- Animaliekin terrenoak garbitzeko laguntzak bideratu
- Loreak
- Eguberrian argi batzuk edo piñu bat
- Sasi eta belar txarrak garbitu behar dira etxeetako lorategi pribatuetara iristen diren bideetan
- Basoak txukun mantendu, landareak landatu
- Dirulaguntzak etxeak pintatzeko, txukuntzeko
- Pinu Insignisa gaixoturik dagoela eta epe motzean atera beharko dela kontutan harturik, honen ordez autoktonoa den zuhaitza landatu edota belaze mantentzea bultzatzea, ondorengo belaunaldietarako paisaia orain definitzeko garaia iritsi da eta **x4**
- Bertako zuhaitzak
- Denon esku dagoela uste dut, daukaguna zainduz
- Denon artean zaindu, eraikuntza mugak ezarriz
- Paisaia babesteko ezagutu behar da, eta ezagutzen dugun edo duenak paisaia maitatu behar du
- Gune batzuk babestu

- Herriko lurrak erosi (edo hiritik at) eta lur paisajistak bezalako enpresa baten bidez luzera begirako antolaketa "paisajistiko" bat zehaztu, proiektu sozioekonomiko baten baitan
- Ingurunearekiko errespetua duen baserritarrari lagundu
- Bere edertasuna bistartzeko neurriak hartu, ibilbideak egokitu, begiratokiak identifikatu eta egokitu, eta herriko kaskoan mapa baten bitartez erakutsi. Turismo jasagarria...
- Ondo dago
- Herriko inguruko parajeak ikusteko dauzkagun "miradore" naturalak zaindu eta babestu. Udaletxe aurreko zelaia (erretore etxe ondokoa), Eskolapioetako miradoreko ingurua. Eraikigarriak izan ez daitezten esku-hartzen saiatu
- Behar justifikaturik ezean landaguneak katalogazio horekin mantendu, ez bihurtu urbanizagarri
- Herriko miradore naturalak eta egokituak zaindu
- Basoak babestu
- Ibilgailu ezberdinen erabilera, aparkalekuak mugatu (autoak, kamioiak, traktoreak,...)
- Baserritarrak zaindu
- Gehiago ez eraiki
- Industria gabeko herria mantendu
- Baserritar eta langabeei laguntza eman bere sailak garbitzeko
- Basoak publikatu eta bertako espezien landaketa sustatu

### **Zer egin daiteke gure natur baliabideak eta ondarea zaintzeko?**

- Herriko hurrei edo ondorengo belaunaldiei hauen berri emateko programak antolatu, hala nola, bertako zuhaitzen berri, baserrietako lanbideak lehen mailan ikusteko eta ikasteko egunak antolatu, mugak ezagutu
- Zakurrak lotuta ez daude ondo
- Abalik (edo abarik) landatu
- Udaletxeak herri lurrak balitu bertako zuhaitzak aldatu
- Ezagutu!!
- Zainketa lan periodikoak
- Lehenago egin izan ohi diren ekintza desegokiak konpontzen saiatu ahal den neurrian, hilerri eta frontoi atzeko lurretan piñuak bota eta bertako zuhaitzak sartu bezalako proposamenak onak lirateke. Hau aurreko galderan ere sartuko nuke
- Zaintzako beharraren garrantzia kontzientzia bultzatu
- Umeentzako tailerrak egin kontzientzia izan dezaten
- Lehendabizi babestu beharrekoak identifikatu eta zerrendatu. Ondoren, horien gaineko eskumenak baloratu. Azkenik, neurri zehatzak edo konpromiso egokiak planteatu
- Identifikatu, lehenetsi eta babestu
- Elizan egindako berritze lanak eta sortutako zorra diruz lagundu
- Baserritarrak errespetatu
- Herrian dauden ondareen txosten bat egin eta horrekin zaintze eta berreskuratze plan bat egin (lan honetarako ezinbestekoa da betidanik herrian bizi izan den jendearen laguntza), herri bideen egoera ikusi eta berreskuratu...
- Bertako zuhaitzak, landareak oparitu landatzeko



### **Zer egin daiteke arrisku egoerak ekiditeko?**

- Prebenitu. Ez dakit ze arrisku motataz ari zareten
- Orendain – Alegia errepidea argitzea, herritarrok gehien erabiltzen duguna da eta
- Orendaingo sarreran errotonda jarri. Orendaindik Abaltzisketara bidegorria edo herribidea ipini
- Ez dakit ondo ulertu dudan galdera, baina adibidez udalak sua itzaltzeko mangerak jarri, suhiltzaileak erakustera etorri eta nire iritziz oso jende gutxi agertu ginen. Nire iritziz udalak gai honetan bere aldetik egin beharrekoa egin zuen, gero herritarrak...
- Egoera asko izan daitezke. Oso galdera zabala da
- Informatu hitzaldiak emanaz
- Herritarrak bildu, eztabaidatu eta babesteko neurriak hartu
- Larrialdietarako ikastaroak eman. Sua itzaltzeko ikastaroa oso ondo iruditzen zait antolatu izana
- Purina eta pixa botatzen dutenean errepidea garbitu
- Udaletxetik ikusi ez den arrisku egoera bat da: pixa botatzen denean karreteran uzten duten zikinkeria. Karretera uzten duten bezala edozein kotxek frenatzen duenean zerbait jotzen badu, kotxearen aberiak udaletxeak ordaindu behar al du?
- Zein arrisku mota? Galderak zehaztasuna falta du
- Egon daitezkeen arrisku egoeren prebentzioa landu (kurtsoak, hitzaldiak,...)
- Eudelekin elkarlan ildoak zabaldu diagnostikoa eta plangintza egokia egiteko
- Ze motatakoak?

### **Zer egin daiteke udal kudeaketa hobetzeko?**

- Web orri berria tresna ona izan daiteke
- Oso ondo dago. Inoiz baino hobeto dago
- Interes partikularrak eta kolektiboak zein diren bereiztea. Herriarekin kontaktua izan
- Garrantzia duten gauzak priorizatu, ez denbora galdu txikikerietan
- Parte hartzearen bigarren zentzuan azpimarra jarri, HIRITIK AT bezalako kolektibo baten laguntzaz parte hartze dinamika batean sakondu
- Online bidezko zerbitzua hobetu. Teknologia berriek zentzu honetan lagun dezaketela uste dut. Web guneari probetxu gehiago ateratzea dagoela uste dut. Galdeketa hau egiterako garaian adibidez, papera erabiltzera ez ginatete behartuko (udalarentzat merkeago) eta datuen bilketa ere errazagoa litzateke. Formula aurkitu behar. Noski, ordenagailua erabiltzera ohituta ez dagoenak ez du modu honetan egin nahiko... Hala ere, horrela egiteko laguntza eskaini daiteke, formakuntzaren bitartez
- Laguntza soziala jaso eta langabezia daudenen artean brigadak sortu herri lanak egiteko
- Aurrekontu parte-hartzaileak izateaz haratago, denon arteko erabaki hauek aurrera eramateko parte-hartze mekanismoak eskaini urtean zehar ere
- Bertako langileen lanari balioa eman iritzi pertsonalen gaintik

## **Zer egin daiteke herri giro eta kohesioa hobetzeko?**

- Giro ona dagoela dirudi
- Herritar guztiak batera parte hartu ditzazketen ekintzak
- Gaizki esaka ibiltzen den jendea herritik bidali!!! FUERA!!!
- Herritar guztiak batera parte hartu dezaketek ekintzak (irteerak, hitzaldiak...)
- Pintxo-pote egunero eta bakoitzak ahal dunean
- Jendearen aldetik gogo gehiago jarri ezker dena errazagoa izango litzateke
- Ostiral iluntzetan mus txapelketa herrikoia antolatzea ostatuan
- Porposamen askotarikoak zabaldu
- Egiten da. WhatsApp bidez Orendaingo laguntza taldea dago. Erreminta hau erabiltzen ez duenarentzat ere aukera emango nuke
- Herritar guztiak luzerako proiektu batean kokatu, Orendain irautetik bizitzera igaro daitekeela sinistuarazi eta horretarako dauden aukerak azaldu. Zentzu honetan interesgarriak izan daitezke Zerain bezalako herrietan aurrera eraman diren dinamikei erreparatzea
- Topaketak, kultur ekintzen bidez esaterako, galdetegi honetan agertu direnak orokorrean. Denboraren bankuak ere honetan lagundu dezake
- Pintxo-potea egitea astean behin, Pablorentzat proposamena...
- Kultur ekintza gehiago antolatu
- Kirol ekintzak antolatu, irteerak...
- Kotilleoak murriztu
- Errespetua bultzatu
- Ostatuan astean behin pintxo-potea jartzea
- Faltsokeriaz ez jokatzeko eta handikeriaz ez ibiltzea
- Herri giroa asko da norbanakoen borondateen arabera, baina udalak planteamendu integratzaileak, aglutinatzaileak eginez lagundu dezake. Modu naturalean zirkulu berean mugitzen ez garenak harremanetan jartzeko aitzakiak. Bideak eskaini
- Herritarren arteko hartu-eman behartuko duten ekintzak burutu
- Herri potea antolatu
- Errespetu gehiago egotea eta batzuk besteak baino gehiago direla sinismen hori bukatzea
- Orain artekoak ez du asko lagundu. Herri giro kaxkarra! Aurreiritzi eta etiketa gehiegi herri txiki honetan!

## **Zer egin daiteke herritarren bizi kalitatea hobetzeko?**

- Nahiko bizi-kalitate ona dagoela herrian uste dut
- Berriketa gehiago
- Gehiago!!
- Herritarren hipotekak ordaindu
- Herritarren arteko harremanak sendotu. Aurreko erantzunak balio lezake honetarako
- Errepidea egunero erabili behar dugunez, lehentasun bat dela ikusten dut. Produktuak edo ogia erosi ahal izateak asko erreztuko luke dena
- Garraio zerbitzuak bermatu
- Gizarte zerbitzu on batzuk eskaini
- Herritarrok elkarrekin interaktuatzeko foroak landu
- Eskolaren proiektua aurrera atera
- Garraio zerbitzuak
- Osasun zerbitzuak
- Eskola
- Frontoia erabiltzeko zer premia dagoen aztertu gaztetxo eta helduen artean. Antolatu ordutegiak eta ikusteko moduko kartelak jarri. Herritarrak bereizteko logoa sortu
- Denok errezeta ezberdinak behar ditugu
- Herritarren sareak sortu

## Ba al daukazu bestelako proposamenik?

- Txakurrak ibiltzeko belardi itxi bat iñor ez molestatzeko
- Dauden katuen kantitatea kontrolatu. CES programara gehitu (Capturar – Esterilizar – Soltar). Katuak beharrezkoak dira baina kontrolatu egin behar dira
- Herriko tabernan, mesedez, faktura ematea. Ez gara bizi orain dela 20 urte
- Txakurrak ibiltzeko berdegune txiki bat jendea ez molestatzeko
- Aurreko bi galderak erlazionatuz: Emakumeen taldea martxan da, baina elkarbizitzarako aroak aniztasun eta berdintasuna jarraitzea oso interesgarria dela iruditzen zait. “Berdinak gara gure desberdintasunean”. Badaude estereotipo, prejuizio zein aurreiritziak gainditzeko hainbat bide
- Politika alde batera utzi. Herrian antolatu behar diren proiektuak bakoitzaren ideiak errespetatuz
- “Igerileku naturala” jartzea aztertzea. Jasangarria eta klororik ez duen igerilekua. Eraikuntza konbentzionalaren parekoa da ekonomikoki, baina mantenuan askoz ere baxuagoa. Estetikoki, erabiltzen ez den garairako oso polita izan daiteke
- Haize errota, eguzki energia... bultzatzea oso garrantzitsua iruditzen zait. FIBRA OPTIKOA jarri daiteke gure bizitzak hobetzeko
- Pixa botatzea mugatu
- Hurrengo galdetegian aldatzea jasotzeko modua. Ez zait batere pribatua iruditzen. Nik uste dut udaletxe sarreran kaxa bat ipini eta hor norberak eramango du interesatzen bazaio
- Hartutako erabakien exekuzioari plazoak jarri beharko litzaizkioke: Ostatua kez betetako gunea izaten jarraitzen du, eliz atzeko bidea oztopatuta dago oraindik askotan... Borondaterik ezean (dagokionaren aldetik), zailagoa dela ulertuta ere, lortu arte gainean egon beharko da. (iritzi bat da)
- Ibiurko oinezko bidea amaitu (bira osoa), garbitu (sasiak, eta abar) eta oinezko ibilbidea proposatzen duen mapa, kartela edo delakoa jarri herrigunean. Inguruko herriekin elkarlana ezinbestekoa da! Proiektu potentea! Eta ekonomikoki interesgarria!
- Ostatuan ez erretzaileen eskubidea bermatu, gutxienez dituen bi gunetako batean (gogoratu legea bete behar duela eta udala tartean dela)
- Laguntza soziala jasotzen dutenen artean taldeak egin eta udaletxetan lanean jarri
- Orendaingo herria, pistina ekipamendua duen herriren batekin (Tolosa edo Ordizia) adostasun batera iritsi tarifa merkeagoak izan daitezen
- Udal aldizkarian jartzen duenez, baten batek herriko festetan txerri harrapaketa antolatzea proposatzen du, eta udalaren erantzuna: “...festa batzordeari luzatuko zaiola proposamena...”. Horren ordez, nire ustez, edozein animaliri edozein moduko tratu txar edota sufrimendua eragingo lioken “festa”rik antolatzearen aurkako jarrera izan beharko luke udalak
- Kanpotarrei ematen zaizkien laguntzak bertakoei baita ematea
- Etxe eta herri bideetatik gertu dauden ehiztari postuak kentzea
- Orendainen animalien sufrimenduekin zerikusia duen ekintzarik ez onartzea
- Aurrekontuak ikuspegi parekide batetik aztertu eta hobetu berdintasun teknikarien laguntzaz
- Gerbilleko tontorrera bide asfaltatu bat eta bertan eserleku batzuk eta mahai batzuk
- Herriko ikasle eta langabetuak frontoiko argindarra dohain izatea
- Txakur kakan arazoa konpondu
- Logoa berritzea nahi den galdetu behar zen

## Auzolanerako ideiak

- Parkeko hesia berriz margotzea
- Frontoiko aldameneko paretean mural bat egin
- Herriko zenbait lanez gain, etxeetan edo propietate pribatuetan auzolana deitzeko udalak nolabaiteko bitartekari lana egitea (harremanak hobetzeko balio dezake)
- Edozein lan egiteko prest, arratsaldetan edo larunbat edo igande goizetan
- Auzolana komunismoa da eta kapitalismoan bizi gara, orduan lan horiek langabezia dagoenarentzako ordainduta
- Aparteko esku-orrian ekintza batzuk auzolanean egitea proposatzen da. Erabat ados. Baina ea jende gehiago animatzen hasten den
- Zabor bilketa
- Herri txukunketa
- Aurreko urteetan proposatua egokia iruditzen zait
- Herri bideak txukundu
- Herriko ondare inmaterial eta materialaren bilketa
- Plaza inguruan lorategiak sortu. Auzolanean egiteko ekintza polita dela pentsatzen dut. Haurrekin egin daiteke
- Bertako zuhaitzen landaketa ere modu honetara egin daiteke (kontzientziazio jardunaldiak...)
- Errepideko zaborrak bildu, orain arte egin den bezala
- Herriaren lurren batean zuhaitzak landatu. Bertako zuhaitzak edo fruitu zuhaitzak
- Herri bideak garbitu: Alegia – Orendain, Ibiur – Abaltzisketa
- Herrian bertan egin dezakegun zerbait planteatu: beharbada zabor txabolen pintaketa... Edo herriko berdeguneak txukundu eta lorez apaindu
- Galdutako mendi bideen mapa osatu eta berreskuratzen saiatu
- Herriguneko “jardinak” apaindu lore, landare eta abarrekin (kultur etxe ondoan adibidez,...)
- Gimnasioan gutxiago gastatzeko agian norberaren etxeko tresna baliogarriak gimnasioan uztea (nik utziko nituzke ariketa ezberdinak egiteko tresnak: fitball, esterillak, bizikletarako rodiloak,...)
- Herriko sarreran “Orendain” dioen mural dotore bat margotu profesional baten laguntzaz
- Herri bideak garbitu eta herriko ondare kulturala berreskuratu (eta bide batez ezagutu)
- Ez! Sortutakoa herriko langabetuekin egin ordainduta. Lana kentzen zaie
- Elkarteko olio zikinarekin xaboia egin, herritarren artean banatu eta biodegradableak diren xaboi erabilera bultzatu

## Balorazioa

### 1. Zer moduzko lana egiten ari da udala?

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
	2	2	1	7	6	18	27	8	11

**TXURIAN:** 33

#### Iritziak:

- Lan bikaina. Herriaren ongizatean sinisten eta gogor lan egiten duen udal taldea zaretela deritzot. Herritar guztien iritzia jakitea da horretarako bide bakarra
- Oso ondo. Tabernan karta bat prezioarekin behar du, eta ticket bat ematea. Gimnasioa kanpoan jartzea, makina batzuekin hiri askotan bezala
- Gauzak hobetu nahi dituzte **x2**
- Udalaren lana herritarren iritzia kontuan hartu eta baloratzeari begira egokia da. Kultura arloan badaude gabeziak, ordea. Kontzertu, ikuskizun, literatura, antzerki edota hitzaldiak antolatu daitezke
- Ondo
- Ez daukat ezer udalaren aurka. 8 bat, beti egon daitekeelako zerbait hobetzeko
- Askok gustatzen zait udalak duen jarrera, administrazioa zein langileak oso arduratsuak dira
- Ezin dut iritzia eman oraindik berria naizelako herri honetan
- Kexarik ez dut, lana asko eta oso ondo egiten duzue
- Ondo egiten duzue lana
- Udalak egiten duen lanarekin ados nago. Denbora libre gutxi dudanez ezin dut udalak antolaturiko bilera, etab... parte hartu
- Kontu asko eta ekintza gutxi
- Orendaingo herrian parte hartze dinamika bat antolatzea ez da erraza, herri giroa ez baitago
- Hobetu daiteke
- Oso pozik gaude herritarren proposamenak gauzatzen doazelako, herria bizirik dagoelako eta ikastaro eskaintza zabala dagoelako. Hau da jarraitu beharreko bidea!! Zorionak!
- Ona, baina hobetu dezake. Uste dut 4 urte egin eta gero berriak sartu behar dutela udaletxean, bestela oso arriskutsua da bere eginkizunak lasaiago hartzea, eta beste 4 horiek ezer gutxi eginez pasatzea
- Lan ona, asmo onez eta arduraz ari zarete, zorionak. Parte-hartze prozesu hau garrantzitsua da, baina bideak eskaini beharko lirateke urtearen une ezberdinetan prozesuaren jarraipena, gauzapena... ere parte-hartzailea izaten jarraitzeko  
Auzolanaren kontzeptua zabaldu beharko genuke  
BASO-ESKOLA: proiektu oso garrantzitsua eta potentea da, herriaren babespean garatu beharrekoa. Herriak bultzatu eta sostengatu beharko luke, eta zentzu horretan ez da ari izaten behar beste parte-hartzaile. Gai xumegoekin egiten dira etxez-etxeko informazio bisitak, telefono deiak...  
Baso-eskolarekin, ordea, dakidala bilera ireki bakarra egin da, eta ondoren gogoeta, bultzada eta proiektuaren garapena, lehen lerroko interesatuak diren guraso batzuren eskutara mugatu da. Nahiz eta ulertu gerturatu den guztia ongi etorria dela, egiten ari denaz oso bestelako ahalegina egin beharko luke udalak ekimen honetaz informatzeko eta bertara herritarrak batzeko.  
Bestela arrisku handiak ditu proiektuak. Oinarrizko sostengu sendorik ezean (herria orokorrean), gaur interesa duten gurasoak bihar proiektutik kanpo geratuko dira, umeen denbora pasatzen zaionean. Alegia, proiektua ezin du izan gaur 3-5 urte bitarteko

umeak dituzten gurasoen arabera bakarrik, nahiz eta hoiek lideratu (hori ondo dago, normala da)

Laburtuz: "BASO-ESKOLA" bezalako proiektu eder eta garrantzitsu baten inguruan askoz mugimendu handiagoa sortu beharra dago, interesatuak (erabiltzaileak) izan ala ez, ahalik eta herritar gehienen parte-hartzea eta atxikimendua bilatuz

- Ekimen parte-hartzaileen alde nago, baina esparru guztietan (aurrekontuak, hondakinak, hezkuntza,...)
- Hobetzea badagoela uste dut
- Daukaten diruarekin nahikoa
- Emakumeen presentzia desorekatua da, emakumeen parte-hartzea nola areagotu aztertu beharko litzatekeela uste dut
- Batzuetan ondo, bestetan erdizka eta beste batzuetan oso gaizki. Talde itxura ez da transmititu
- Ez dakit. Hala ere ez daukazue zaila, boikoteatzailerik ez daukazue eta

## 2. Galdetegi egokia iruditu al zaizu?

Bat ere ez	Pixka bat	Nahikoa	Oso egokia	Erabat egokia
3	12	34	16	16

**TXURIAN:** 33

**BOTO NULOAK:** 1

### Iritziak:

- Aldizkarian irakurri dudan moduan zenbait jende oso lanpetua dago eta agian batzuentzat luzetxoa izan daiteke galdetegi betetzea
- Galderak astunegiak egiten dira. Zenbaitetan gauza gehiegi daude
- Oso astuna da
- Luzea eta zaila betetzeko
- Zabalegia dela uste dut. Ez gaude ohituak eta nere ustez beste galdetegi simple eta errazagoa landuko nuke. Oharra: Atal batzutan baiezkua bakarrik edota ezagutzen dudanaren inguruan apustua egin dut. Horregatik erantzun zuri asko daude, ez dudalako gaia sakonean ezagutzen, beraz, nire iritzia ez litzateke oso egokia
- Proiektu asko burutu dituzue eta galdera asko erantzun gabe utzi ditut (ez dakit zer gehiago proposatu daitekeen)
- Ez da ekintzetan islatzen
- Parte hartzearen zentzu ahula azpimarratzen da bertan, horren ondorio dira, herrian zenbaitek emandako erantzun zentzugabeak (sauna bat jartzea edo pentsioak igotzea)
- Lan pixka bat ematen du baina herritarrak ardura hau hartzea ezinbestekoa dela pentsatzen dut. Udalari lagundu behar zaio gutxienez galdetegi honi ahalik eta ondoen erantzuten. Ezin egokiagoa dela deritzot
- Horrela jarraitzea espero dugu, gure iritziak zerbaitetarako balio duela ikusteak poz handia ematen digu
- Betiko galderak
- Galdera batzuk ez dakit nola erantzun, eta beste galdera batzuk faltan bota ditut
- Galdetegi egokia, udala entzuteko prest dagoen bitartean gure konpromezua da esateko dugunaren ekarpena egitea. Ariketa eta ahalegina eskertzen da. ZORIONAK egiten duzuen lan emankorragatik, animo!
- Proposamen berriak atalean zenbait punturen azalpena jarri beharko litzateke (adibideak). "Aditua" ez bazara, ez dakizu zeri buruzko galdera den
- Ezin hobea
- Nahiko zaila
- Ez dakit zer esan. Erantzunik gabe geratu naiz

- Rallya Irurako ikastola laguntzeko da, beraz, Euskarari laguntzeko da. Beraz, lotsagarria iruditzen zait Rallya kentzeko proposamena. Orendain bezalako herri euskaldun batean
- 1.atalean hiru proposamen nahikoak.  
Proposamen berrietan helburua azaltzea falta zaie, bestela ezberdin ulertzea daude. Edozein proposamen bota eta galdetegira, edozerk balio du? Ez dagoena argi ez galdetu. Jasotzeko kontua ez dago ondo, bakoitzak entregatu behar ditu, udalak emandako erantzunarekin bat ez nator  
Proposamen batzuk jira eta buelta galdetegitan azaldu dira. Ez badira egin behar ez galdetu
-